



GORKA PAGONABARRA AGORRIA

«Promesaren etiketa izan dut, baina plazara zoaz eta ez zaude hain fuerte»

Durango, 2000. Finalista gazteena da, baina badu esperientzia, hala izan zen 2021ean ere. 2018an ere parte hartu zuen Bizkaiko txapelketan eta 2022an, Euskal Herrikoan ere bai.

Pozik dago Miribillan kantatzeko «aukera eder hau» due-lako, bigarrenaz gainera. «Egun oso intentsoak dira», sentimendu asko ditu barrenean bueltaka: poza, urduritasuna, beldurra... «Hor daude, baina denak bere lekuan, neurtuta momentuz».

Helburu berezirik jarri diozue buruari finalerako?

Duela bi urte handitxo gelditu zitzaidan finala, nire burua kanpoan ikusten nuen. Aurten konfiantza gehiagogaz nago, eta gustatuko litzaidake ber-

tan sentitzea eta ariketaren batean niretik uztea; iritzi aldetik, dena delakotik.

Hasierako agurrean aipatu zenuen joan den txapelketan finalean sartzeak ez zenekielan on egin ote zizun. Gaztea izanik ondorenera garatutako segurtasun faltak, plazan ere demostratu beharrak... Zer eragin izan du zugan?

Sorpresaz sartu nintzen, poza ikaragarria izan zen, baina gehiegizko garrantzia eman nion. Gero kostatu zait berriro nire burua topatzea eta kokatzea, onartzea finalera pasatu arren bertso txar pila kantatu behar ditudala oraindik. Adibidez, Euskal Herriko txapelketara pasatu ginenean, hor nahiko bolada txarra izan nuen, 2022ko udazkenean hiru-lau saio kateatu zitzaizki-

dan zeinetan ezin nuen bertso bat ondo josi, tartean izan zen Euskal Herriko saioa, eta nahikoa sufritu nuen. Kostatu zitzaidan final oste hori, eta hein horretan bigarrenaz finalean egotea bada nire autoestimua rentzat opari txiki bat.

Gazteenaren titulua ere badaramazu. Zer ekartzen dizu?

Promesaren etiketa hori izan dut, fuerte datorren gazte horrena, baina gero plazara zoaz eta derrepente ez zara hain ona. Kostatu zait hori ulertzea eta kudeatzea. Bertsoan ondo egin nahi duenak lan asko egin behar du. Balio izan dit ikasteko eta beste heldutasun bategaz ailegatzeko.

Lehen saioan kantatu zenuen, Berrizen, eta txukun aritu zinen.

Finalerako nire helburua, bertan egon eta niretik zerbait uztearena, Berrizen lortu nuela esango nuke. Beldur eta zantzaz puntu batekin nintzen, inoiz ez da jakiten nola joango den, baina egun hartan nire alde erabili nituen nerbioak. Orokorrean, ofizioetan, hanka sartze batzuk eginda ere, daki-danaren zati handi bat erakutsi nuen. Ez nuen aparteko kolperik eman, baina bertsoz bertso nahiko saio politak osatu nituen.

Nola prestatu zara?

Betikoa da, inork ez daki zehazki zer egin behar den txapelketa prestatzeko [dio irriz]. Bertso eskolak egin, jendaurrean egin beharreko ariketak behin eta berriz entseatu, akatsak atera eta horiei begira berriro egin... Nire kontura ere saiatzen naiz irakurtzen eta buruan bertsoa presente edukitzen etengabeko bilaketa horretan.

Zein harreman duzu bertsoekin? Zer moduz zabilte plaza aldetik?

Garaiazen arabera ilusio gehiago edo gutxiagogaz, baina oro-korrean ilusio eta poz handiagaz ibiltzen naiz plazarako aukera dagoenetan. Oso karu dago plazarako sarbidea, bertsolari on asko dago eta oso gaitza da lekutxo bat egitea. Hortaz, poz handia sentitzen dut plazak agertzen direnean, baina bestetik, arriskua izaten da saio gutxiko garai batzuk eduki eta desengatxatu eta desmotibatzekoa. Hala ere, ez dut bertsoa uzteko burutaziorik izan.

Nola ikusi duzu txapelketa oro har?

Txapelketa guztietan pasatzen den bezala, ez dago pozik denentzat, zortzi leku daude eta bidean geratzen dira pena batzuk. Final laurdenetan jendea orokorrean oso urduri ikusi nuen, berea ematetik urrun samar. Hor pena batzuk hartu nituen eta nire buruari esan nion “ea finalaurrekoetan horri buelta ematen diogun”. Hor gehiago eman genuen guretik. Pertsonalki, justu bederatzigarren eta hamargarren geratu dira Aitor Bizkarra eta Txaber Altube lagunak. Intentsoa izan da ospakizuna, jakin dugu batzuen penak sendatzen eta besteen pozak ospatzen. Ezin bestekoa da taldea bertsoetarako, lagunaren pozekin poztea.

Zortzikotearen argazki berria da. Aissak sorpresa eman du, Aitor [Etxeberriazarraga] eta biok aurrekoan eman genuen bezala, eta aurten konfirmatu. Bertsolari diferenteak gaude eta ederra izango da baikoitzak bere tonu berezia atera ahal izatea. Ez dut gehiago esateko; esateko dudana saiatuko naiz errimatuta esaten.